



**PERTSONA MIGRANTEEN NAZIOARTEKO EGUNA**

**Konpromisoak langile guztion Euskal Herria eraikitzeko bidean**



Gaurko egunean, Pertsona Migranteen Nazioarteko Eguna, LABek pertsona migranteek pairatzen duten egoera gogorarazi eta salatu nahi du:

- Jatorrian, kapital transnazonala da Iparralde Globalaren eta Hegoalde Globalaren arteko ezberdintasunak eragiten dituena. Hegoalde Globaleko herrialdeei inposatzen zaien eredu ekstraktibista eta espoliazioa eta orokorrean, kapitalismoa neoliberalak bultzatzen duen garapen eredu sostengaitza txanpon beraren bi aurpegiak dira.
- Zirkulazioan, izan ere, bidaian ematen diren giza eskubideen urraketak konstante bat dira. Mugen itxiera, poliziaren gehiegikeriak, babesgabetasun politiko eta juridikoa... errealitate horren adibide garbiak dira.
- Helmugan. Langile migranteak lan eskuaren esplotazioaren azken katebegira dira patronalarentzat. Lan eskubideen murrizketa eta eskubide sozialen murrizketa langile guztiok sufritzen ditugun erasoak dira, baina langile migranteek modu krudelagoan bizitzen dituzte.

Transnazonalek, haien interesen arabera, mugitzeko erraztasun guztiak dituzten bitartean, herrialde pobretutako pertsonak migratzeko zailtasun itzelak dituzte, izan ere, haien giza eskubideak urratuak izaten dira. Era berean, milioika pertsona langile eta lan esku esklabo izatera behartua ikusten duten euren burua. Arrazoi hauengatik, hain zuzen ere, migrazio fluxuak kapitalaren distribuzioaren ondorio dira eta munduko orden berriaren forma politiko, ekonomiko, kultural eta militarrean inpaktu zuzena dute.

Europako mugimendu sozial, sindikal eta politiko alternatiboaren erronka, Euskal Herrikoarena barne, oso garrantzitsua da. Afera ez da bakarrik subjektu migranteekiko elkartasun eta erresistentzia sareak sortzea. Erronka, hain zuzen ere, langile klasearen zatiketa gairatzea eta ortzimuga berri bat eraikitzea da, pertsona guztiak bizitza duin bat bizitzeko eskubidea izango duten ortzimuga solidario bat eraikitzea, alegia.

Europako migrazio politikak errotik aldatu behar dira. Gure apustua herrien eta langileen eskubideak errespetatuko dituen Euskal Herria bat eraikitzea da eta, horretarako, errotik ezberdina izango den Europa bat eraiki behar dugu.

Aldaketa estruktural bat beharrezkoa da, eta, zentzu horretan, aldaketa politiko eta soziala gauzatzeko borroka kolektiboak jostea ezinbestekoa da. LABek ordezkatzen duen kontrabotere sindikalismotik proposamenak, antolakuntza eta borroka forma ezberdinak eta aliantza estrategiko anitzak proposatzen ari gara testuinguru honi pertsona migranteekin batera erantzuteko.

Migrazio mugimenduak munduan ematen diren aberastasun banaketek eragiten duten desberdintasunei lotuta daude. Zentzu horretan, LAB sindikatuak hurrengo urteetara begira hartzen dituen konpromisoak, gaur publiko egiten ditugunak, migrazioa afera politiko eta estruktural bezala kokatzera bideratuta daude. Beraz, auzi hau planteatzerako orduan, Euskal Herriko demokraziaren eraikuntzaren bidean kokatu behar dugu, betiere aldaketa sozialaren aldeko ikuspegi batetik.

Konpromisoak, zentzu horretan, migranteak politika publikoen (eta zergatik ez esan, sindikalen) interbentzioen objektu izatetik subjektu politiko izatera pasatzeko hausnarketatik enfokatuta daude. Beste modu batean esanda, subjektu politikoak diren heinean, beraien baldintzak, beharrak eta eskaerak gure agendan kokatzeaz gain, parte hartze sindikala bultzatzeko espazioak sortu behar ditugu. Azken finean, sindikatuak Euskal Herriko langile klasearen aniztasunaren ispilua izan behar du.

Perspektiba honetatik, LABek ordezkatzeko duen sindikalismoak pertsona migranteek euskal gizartearekin izan beharreko elkarrekintza eta elkarkidetzaren prozesuaren parte izan behar du.

Horretarako, aldaketa sozialean oinarritutako prozesu independentista batek izan dezakeen potentzial guztia garatu behar dugu langile migranteen interesak defendatzeko eta ortzimuga askatzaile berri bat sortzeko.

Orain dela aste batzuk, Eusko Jaurlaritzak, Migrazioarako Euskal Itun Soziala aurkeztu zuen. LAB sindikatutik ez parte hartzea erabaki genuen, izan ere, gure iritziz, bertan ez da konpromiso zehatzik ez eta politika publiko zehatzik kokatzen migrazioaren aferari modu integralean erantzuteko. Berrero ere ikusi dezakegu nola Eusko Jaurlaritzak diskurtsoa eta praktika modu ezberdinean ulertzen dituen. Erretorika hutsak ez ditu eskubideak eraikitzen; ekintza eta erabaki konkrituak behar dira, eta, zoritxarrez, DSBEaren erreforman edota harrera planen aplikazioan ikusten ari garen bezala, Gasteizko Gobernuak asko du hobetzeko gai hauetan. Are gehiago, atzerapausoak ematen ari da politika publiko askotan.

Horregatik guztiagatik, LAB sindikatuak migrazioaren auziaren inguruko bere konpromisoak egin nahi ditu publiko, bere agenda sindikalean ondorio zuzena izango dutenak:

## **Eremu estrategikoa**

- Produktzio sistemaren, eredu ekstraktiboen eta kontsumo ereduaren transformazio erradikala.
- Pertsonen mesedetara eraikita egongo den Europa demokratiko baten aldeko pausuak ematea. Europako Batasunaren migrazio politiken salaketa, eta, zentzu horretan, herrien eta langileon Europa sozial bat eraikitzea, pertsona migranteen eskubideak errespetatuko dituen.
- Gerra inperialisten eta eragiten dituzten ondorioen salaketa.
- Eskumen guztiak izango dituen eta justizia sozialean oinarritutako Euskal Herriaren eraikuntza. Pertsona guztien, eta, beraz, langile migranteen bizitza duina bermatuko duen Euskal Herria.

## **Hurrengo 3 urteetan aurrera eraman beharreko konpromisoak:**

### **Soziopolitikoak eta interpelazio instituzionala**

-Pertsona migranteen aldeko erakundeen dinamika sozialetan parte hartu. Dagoeneko horretan ari gara Ongi Etorri Errefuxituak edota Harrera Hiria bezalako erakundeetan.

-Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparruaren eraikuntzan, pertsona migranteen inklusioa bilatuko duten politikak eta proposamenak bultzatu.

-Emakume migranteen protagonismoaren aitortza eta ahulduntzea Politika publikoak egiteko exijentzia, egungo migrazio iturriei lotutako generoen arteko harremanaren berezitasuna kontutan hartuta; sexu askatasun eta aniztasun eta genero arloko eskubideak, barne. Oinarri hauek Yogyakartako Printzipioetan jasota daude, ONU erakundeak 2007. urtean aurkeztuta.

-Harrera sistema integral bat artikulatzeko konpetentzia osoak exijitzera bultzatu euskal administrazioak, betiere elkartasun eta nazioarteko kooperazioa kontuan hartuko duena.

-Pertsona migranteen aurkako diskriminazio egoerekin eta gehiegikeriekin amaitzeko politika publiko zehatz eta eraginkorrak hartzera bultzatu euskal administrazioak. Batez ere, emakume migranteen egoeran kontuan hartu beharko litzateke.

-Atzeritartasun legearen kontra agertzera exijitu euskal administrazioak.

-“Paperen” exijentzia, hots, hemen dauden pertsona migrante guztientzat lege aitortza, eta sufragiorako eskubidearen aldarrikapena eurentzat, udal mailatik hasita. Eskubideetan ez badago berdintasunik oso zaila da integrazioaz hitz egitea. Etxe finkorik gabeko errolda edo behin behineko bizilagun txartela aztertu daitezkeen elementuak dira.

-DSBEa tresna eraginkorra bihurtu, kohesio soziala bermatuko duena eta pertsona migranteen integrazioa ahalbidetuko duena.

## **Sindikalak**

-Etxeko langileekin egiten ari den lanarekin jarraitu, plataforma baten erredakzioan aurrera eginez eta Confebask interpelatur hitzarmen kolektiboaren inguruko negoziazioekin hasteko.

-Aporofobia, arrazakeria eta xenofobiarekin amaitu. Zurrumurruen kontrako gida bat egin lan zentroetan lantzeko.

-Pertsona migranteen, edozein izanda ere bere egoera legala, parte hartzea izango duen ekintza sindikala abiatu. Gainera, langile migranteek enpresetan pairatzen duten diskriminazio egoerarekin bukatzeko interbentzio sindikaleko plan bat artikulatu. Dagoeneko sektore hauetan lan egiten ari gara eta gure asmoa lan hori indartzea da:

- a. Etxeko langileak.
- b. Nekazaritzako langileak.
- c. Kale saltzaileak.
- d. Arrantza sektoreko langileak.

-Behin baino gehiagotan esan dugun bezala, pertsona migranteen eskubideak eta euskal gizartearekiko harreman eraikitzailea bermatuko duen prozesua alde bikoa izango da; hau da, guztion artean eraiki behar dugu eszenatoki berri hori. Horretan aurrerapausoak emateko LABeko ordezkariak sindikalak formakuntza sindikalaren bitartez ezagutza eta ikuspegi integral bat eskuratzeko prozesu bat abiatuko du, migranteen errealitateak modu egokian enfokatzeko eta agendan haien aldarrikapenak eta interesak txertatzeko. Horretarako, sindikatua prestakuntzarako materiala egiten ari da, gure ordezkariak sindikalarekin konpartitua izango dena.

Langile migranteak Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak deituriko Greba Orokorra deitzeko ere aprobetxatu nahi dugu momentu hau. Lan, pentsio eta bizitza duinaren aldarrikapenak ezinbesteko elementuak dira pertsona guztien bizitza duina bermatzera bidean. Era berean, Greba Orokorreko aldarrikapen taulak langile migranteen dagozkien puntu espezifikoak ere jasotzen ditu; adibidez, kontratazioan ematen den jatorriaren arabera diskriminazioarekin amaitzea. Esan bezala, Greba Orokorra beste pausu bat izango da borroka ortzimuga konpartitu horiek sortzera bidean.

**Bilbon, 2019ko abenduaren 18an**